

Sendakiña ta baserritarra.

—Zer degu aiskiria
nola gera, nola.
—Jauna miñik supritu
eziñ det iñola.
—¿Nondik sentitzen dezu
esan zazu nondik?
—¡Nondik sentituko det
gerri goi aldetik!
—Estula egiñ zazu
indar guziyakiñ,
ondo jakiñ dezatan
non artzen dezun miñ.
—Eju ... eju ... eju ... juuu!!
¡ai! ¡ai! au da miña
bedorren galdeerak
orañ eragiña!

.....
Aiskiria egiya
esan bear dizut,
bada zuri... ¡Gibela
oso galdu zaizu!
—¿Neri gibela galdu?
¡ori ez da egiya!
bedorrek ikutua
dauka memoriya,
sekulanpañuelo bat
galdu ez badet nik
¿nola naidu gibela
galtzia barrendik?

JosÉ ARTOLA